



EBAZPENA, 2020KO APIRILAREN 24KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, PROZEDURA HASTEA ESKATZEN DUTEN IDAZKIAK ERREGISTRATZEKO AURRETIAZKO HITZORDUAREN ZERBITZUKO LANGILEAK HORNITZEN DITUENA.

2020ko apirilaren 13an, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioarekin adostuta, martxoaren 18an Lex NET bidez edo gaitutako sistema baliokideen bidez idazkiak aurkezteari ezarritako mugak kentzea erabaki zuen apirilaren 15etik aurrera, Aragoi, Kantabria, Katalunia, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Halaber, adierazi zuen, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren inguruabarren bilakaera dela-eta, jarduera handiagoko eszenatoki bat aurrez ikus daitekeela alor guztietan, eta bereziki Justizia Administrazioan. Horretan oinarrituta, honako hau jasotzen du funtsezkoak ez diren jarduketa eta zerbitzuen inguruan: *"Prozedura hasteko idazkiak aurkeztu ahal izango dira, bai eta horiek erregistratu eta banatu ere, eta haien izapidetzea egingo da aplikatu beharreko arau prozesalen arabera, 463/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera eten beharreko epea irekiko duen jarduketa prozesal bat eragin arte."*

Era berean, Erabaki horrek gaineratzen duenez, *"gauza bera gertatuko da izapide-idazkiei dagokienez, etendako edo etendako epemuga edo epeei lotuta ez daudenei dagokienez, harik eta aipatutako xedapen gehigarriaren ondorioz eten beharreko prozesu-epeak irekitzen dituzten jarduketa prozesalak eragin arte"*.

Justiziako ministroak, 2020ko apirilaren 13ko Ebazpenaren bidez, justizia-zerbitzu publikoaren prestazioa apirilaren 10eko 487/2020 Errege Dekretura egokitu zuen, eta justizia-zerbitzu publikoa berraktibatzeke oinarriak ezarri zituen. Halaber, adierazi zuen, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, justizia-administrazioak zerbitzu publiko gisa behar bezala funtzionatuko duela ziurtatzeko, oinarritzko zerbitzuez gain hainbat zerbitzu eman beharko direla, besteak beste: *"Bulego judizial eta fiskaletan telematikoki aurkeztutako idazki guztiak erregistratzea (Lexnet edo Euskal Autonomia Erkidegoko, Kataluniako, Nafarroako, Kantabriako eta Aragoiko sistema baliokideak erabilia), eta horiek organo eskudunei banatzea, epaitegiek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko"*.



Hori guztia jasotzen du, modu berean, Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko apirilaren 13ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan eman beharreko zerbitzuak egokitzen dituenak.

Izapide-idazkiak telematikoki egin badaitezke ere, prozedura hasten duten idazkiei dagokienez, esan behar da gaur egun arazo tekniko bat dagoela aplikazio informatikoa egokitzeko, eta horrek zaildu egiten duela hasierako idazkiak telematikoki aurkeztea.

Hori dela eta, justizia-zerbitzu publikoaren funtzionamendua zaintze aldera, aurretiazko hitzorduaren sistema bat ezarri da, hasiera-idazkiak aurrez aurre aurkeztu ahal izateko. Horrela, Justizia Ministerioak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak adostutako eta Lan eta Justiziako sailburuaren Aginduan jasotako akordioa beteko da, eta eraikin judizialekara jendetza joatea saihestuko da.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aurretiko hitzorduetarako puntu bat ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko 14 barruti judizialekako bakoitzean, prozedura hasteko idazkiak aurkezteko.

Bigarrena.- Aurretiko hitzorduetarako toki bakoitzeko langile bat jartzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 24a

María Isabel Gabriel Bellido

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA



LAN ETA JUSTIZIA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA